

TAU BASKONIA. Tikonenkoren taldearen erritmo bizia gelditu nahi du Tauk garaile izateko

CSKAri irabaztea derrigorrezkoa du Baskoniak Lauko Finalean sartzeko

Moskun galduz gero Ivanovicenek ez dute izango Euroligako finala errepikatzeko aukerarik

Jon Rejado | GASTEIZ

Partida erabakigarrien ordua heldu zaio Tauri. Orain arteko partidetan, egindako akatsak zuzentzeko aukera izan duen arren, gaurkoan ez dute horrelakorik Gasteizkoek: CSKAri irabaziz gero Lauko Finalerako txartela esku-eskura izango due, galduta, ordea, iragan denboraldiko Euroligako finala errepikatu ezinik geldituko dira Ivanovicenak. Hori dela eta partida handietako jarrera berreskuratu nahi dute gasteiztarrek, azken jardunaldietan erakutsitako irrikarik eza albora uzteko. Garaipena lehen helburua bada, hamabost puntu baino gehiagogatik irabaztea da bigarrena, horrela, Baskoniak puntu-aldea alde izango baitu Moskuko taldearekiko.

Bigarren helburu horiek, ordea, alde batera utzi beharko dituzte Ivanovicenek, eta lehen minututik partida erabakitzeke asmoarekin kantxaratu. Baina joaneko partidaren ikusi zen bezala, irabazteko gogo bizi ez badago, zaila da CSKAren joko azkarra gelditzea. Gogoratu behar da Valery Tikonenkoren jokalariek puntu asko lortu zituztela kontraeraso errazen bidez. Partida horretan izandako eskarmentua buruan, Tauk Moskuko taldearen saskiraketa errazak errotik gelditu nahi ditu.

Gakoa, kontraerasoak gelditu

CSKAren kontraerasoak gelditzeko bide bakarra dago: erasoan burua argi izatea errebote-rako aukerarik ez emateko eta, saskiratu orduko, defentsara ziztu bizian joatea. Kontraerasorako aukera ez duenean CSKAren jokoa jokalariek jakinengain oinarritzen da: Mc Cants, Turkcan eta Giricek. Hirukote hori geldituta Moskuko taldeak eraso bideratzeko orduan arazoak ditu. Wolkowsky pibot argentinarrak ere laguntza handia ematen du saskipean, area barruan jokatzen duen jokalariek bakarretako bat den arren Tikonenkoren taldean.

Jakina da, bestalde, Tauk ez duela bizi denboraldiko unerik onena. Azken partidetan kritika zorrotzak egin ditu Ivanovicenak, jokalariek batzuen jarrera dela eta. Gaurko partidaren irabazita, ordea, astean zehar izandako haserrealdiak ahaztuko dira.

ESANAK

DUSKO IVANOVIC

(Tau Baskoniako entrenatzailea)

«Jakin badakigu irabaz dezakegula, baina horretarako ezin dugu akatsik egin»

«CSKAren joko bizia gelditzea erabakigarria da, Gasteizen ez genuen lortu»

«Hamabost puntuko aldea bigarren mailako kontua da; lehen helburua garaipena da»

CSKA Mosku-Tau Baskonia

Txapelketa: Euroligako ligatxoaren 5. partida.


Sailkapena: CSKA Mosku 2. (3 irabazi-1 galdu); Tau Baskonia 1. (3 irabazi-1 galdu).

CSKA: C. Mc Cants, N. Alexeev, M. Turkcan, R. Wolkowsky, N. Padius, G. Giricek, Z. Pachoutine, Josko Poljak, R. Miglieniks, Dimitri Domani, Alexandre Petrenko, Alexei Savkov, Andrei Fetisov.

Tau Baskonia: Elmer Bennett, Christos Harissis, Sergi Vidal, Andres Nocioni, Laurent Foirrest, Hugo Sconochini, Luis Scola, Gabriel Fernandez, Fabrizio Oberto, Dejan Tomasevic.

Tokia: CSKA Sports Hall (Mosku).

Ordua: 18.00etan (ETB 1).



DAVID AGUILAR / EFE

Oberto eta Giricek martxoaren 20an jokatutako partidaren, Gasteizen.

CHRISTOS HARISSIS

Lehen minutuak izango ditu gaur

Tau Baskoniaren azken fitxaketak Gasteizko taldearen elastikoa jantziko du lehenengo gaur arratsaldean, eta, ziurrenik, lehen minutuak jokatzeke aukera izango du: «Gure jokatzeke modua bereganatu behar du, baina azkarra da, jaurtiketa ona du, jokatzen badaki eta minutu batzuk jokatzeke eskubidea du», adierazi zuen Dusko Ivanovic Greziako joko antolatzaileari buruz.

Tau Baskonian bi hilabete egingo ditu Harissisek, eta denbora horretan ahal den guztia ikasten saiatuko dela adierazi du. Horretarako, le-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Corchiani eta Harissis pasa den igandean Buesa Arenan.

hen aukera Caja San Fernandoen kontrako partidaren izan zuten, jokatu ez arren, Ivanovicen taldearen eskema guztiak karpeta batean eman baitzizkion neurketaren aurretik.

Christos Harissis erasoan

defentsan baino hobeto moldatzen den jokalaria da, greziarrak berak adierazi bezala: «Joko bizia egitea gustuko dut, eta defentsa hobetzea nahiko nuke bi hilabete hauetan».

PILOTA

Nagore eta Olaizola I.a gustura aukeratutako materialarekin

Erredakzioa | DONOSTIA

Barakaldoko pilotalekuan atzo arratsaldean aukeratu zuten materiala Jorge Nagorek eta Asier Olaizolak. Larunbatean jokatuko dute bi pilotariak laugarren jardunaldiko kanporaketako partida, eta bi pilotariak gustura azaldu ziren aukeratutakoarekin. Nagorek 104,2 eta 103,6 gramokoak hartu zituen, irteera handikoak, Olaizola I.ak, aldiz, 103 eta 104,7 gramokoak. Goizuetarrak mugitzea kosta egiten den materiala aukeratu zuen.

Gaur eguerdian, Eibar-ko Astelena pilotalekuan, Juantxo Kokak eta Mikel Goñik dute igandeko partidarako pilotak aukeratzeko hitzordua. Jardunaldiko hirugarren kanporaketa bihar jokatuko dute Imanol Agirrek eta Patxi Ruizek, Murgian. Final-laurdenetara sailkatzeko aurrea Aitor Elkoro izan da. Jokin Errastiren hutsuneak mesede egin dio Elkorori.

Pala Txapelketako partida, gaur, Deportivon

Pala Txapelketako partidaren jokatu dute gaur Deportivon Danielek eta Juan Pablok Insausti eta Garmaren aurka. Sailkapeneko aurreneko bi bikoteak aurrez aurre izango direla kontuan hartuta, ikusgarria izan daiteke gaur arratsaldeko partida —Insaustik eta Garmak jokatutako sei partidetatik bost irabazi dituzte, Daniel eta Juan Pablok, aldiz, lau—. Elkarren artean jokatutako aurrekoan Insausti eta Garma liderrek irabazi zuten. Ikus-kizun handia Bilboko Deportivon.

JAIALDIAK

GAURKO PARTIDAK GALARRETA. 16:00.

Iturralde-Badiola / Zalakain-Etxeberria II.a. Ezkurra-Auzmendi / Zeberio II.a-Lizaso. Matxin-Etxabe / Iñigo-A. Lekunberri. Zeberio I.a-Ekiza / Bereziartua-Urko.

DEPORTIVO. 17:00.

Zabalza-Fernando / Casado-Leunda. Txapelketako partida: Insausti-Garma / Daniel Juan Pablo. Ziskar II.a-Ziskar I.a / Urkijo-Beldarrain.